



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

HONDAKINEN KONTROLA

Deskribapena

Elikagaietako industrian sortzen diren hondakinak industrian erabili ezin ditugun elementuak izaten dira eta industriadako kutsadura-iturri bihurtu ahal dira.

Garrantzitsua da hondakinei emango diegun tratamenduaren sistematizazioa egitea industrian bertan; horrela, hondakinen kudeaketa egokia egingo dugula bermatu ahal izango dugu.

Industrian sortzen diren hondakinak kutsadura-iturri dira hainbat arrazoirengatik:

- Kutsadura gurutzaturako iturri dira.
- Oro har, mikrobioak hazteko gune egokia dira.
- Ondo kudeatu ezean, faktore horrek mota guztietako izurriteak erakarri ahal ditu.

Hondakinen kontrolarekin batera, hondakinen ezaugarriak jaso egin behar ditugu, eta multzo orokorretan sartu, hala nola:

- Hiri hondakin solidoak edo asimilagarriak
- Hondakin arriskutsuak
- Hondakin bereziak
- Hondakin-urak

Kudeaketa

Hondakinen kudeaketa multzo bitan banandu ahal da: hondakinen kudeaketa enpresan bertan eta hondakinen kudeaketa kanpo zirkuituetan.

Hondakinak kudeatzeko planak honako hauek jaso beharko lituzke:

- Hondakinak sortzen diren gunek.
- Hondakinak kudeatzearekin zerikusia duten prozedurak eta jarraibideak deskribatzea.
- Instalazioetako planoak, hondakinen biltegiak eta jarraitu beharreko fluxuak ondo zehaztuta.
- Aurrera eramandako ekintzak, intzidentziak eta hartutako neurriak erregistratzeko sistema.
- Kanpo kudeaketarako arduraduna ere identifikatu egin beharko dugu. Eta hondakin arriskutsuak edo bereziak izanez gero, erakunde eskudunak ere izan beharko ditugu kontuan.